



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 11

7. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Zizur Nagusiko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Zizur Nagusiko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko abenduaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Zizur Nagusiko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko abenduaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Zizur Nagusiko Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio - txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (5 or.).

II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (5. or.).

II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (6. or.).

III. Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (7. or.).

III.1. 2015eko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (7. or.).

III.2. 2015eko aurrekontu-emaizta bateratua (8. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (8. or.).

III.4. 2015eko abenduaren 31ko balantze-egoera (9. or.).

III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2015ean (10. or.).

IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (11. or.).

IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (11. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (14. or.).

IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetzea (14. or.).

IV.4. Alderdi orokorrak (15. or.).

IV.5. Langileak (15. or.).

IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (17. or.).

IV.7. Transferentzien ondoriozko gastuak (17. or.).

IV.8. Inbertsioak (18. or.).

IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).

IV.10. Hirigintza (20. or.).

IV.11. Erakunde autonomoak (21. or.).

Zizur Nagusiko Udalaren urteko kontu bateratuen oroitidazkia, 2015eko abenduaren 31ri dago-kiona.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:

www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren 2016ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Zizur Nagusiko Udalarari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparruak, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Zizur Nagusiko udalerriak 5,5 km²-ko azalera du, eta 2015eko urtarrilaren 1ean, 14.493 biztanle dauzka.

Tokiko zerbitzu publikoak emateari begira, Udalak kudeaketa-lanetarako hiru erakunde autonomo sortuak ditu.

2015eko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako bete-beharrak	Aitortutako esku-bideak	Langileak, 2015-12-31n
Udala	10.853.967	10.770.424	98
Kultur Patronatua	387.187	390.616	-
Kirol Patronatua	543.142	564.494	-
Musika Eskolaren Patronatua	496.597	479.125	14
Bateratua, guztira	11.642.643	11.566.409	112

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2015ean egin dituen ekarpenak hauek izan dira: Kultura Patronatuari, 215.654 euro; Kirol Patronatuari, 185.981 euro; eta Musika Eskolaren Patronatuari, 236.614 euro. Ekarpene hauek, orokorrean, ehuneko lau egin dute behera 2014an jasotakoekin alderatuta.

Udala sarturik dago Iruñerriko Mankomunitatean, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraiokoak, eskualdeko taxi-zerbitzua eta ibai-parkearen kudeaketakoak. Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek 252.520 euroko gastuak eragin dizkiote Udalarari.

Hurrengo taulan laburbilduta ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Udal zerbitzuak	Udala	ERAKUNDE AUTONO- MOAK	Mankomunitatea	Zerbitzuen kontratuak	Errentamen- dua
Administrazio zerbitzu orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Genero indarkeriaren prebentzioa				X	
Programak eta baterako hezkuntza lehen eta bigarren hezkuntzan				X	
Berdintasun Zerbitzua	X				
Tokiko enplegu eta garapen zerbitzuak	X				
0-3 urteko haur-eskolak	X			X	
Hirigintza	X			X	
Lorategiak	X			X	
Hiri-hondakinak			X		
Uraren ziklo integrala			X		
Udal eraikinen garbiketa eta mantentzea				X	
Kale garbiketa				X	
Garraio publikoa			X		
Liburutegia-ludoteka	X			X	
Kultur Etxearen kudeaketa	X			X	
Kirol instalazioen funtzionamendua				X	
Kirol instalazioetako taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Kaleen eta bideen mantentzea				X	
Kultura	X	X			
Kirolak	X	X			
Musika Eskola		X			
Kultur Etxeko taberna-jatetxearen kudeaketa					X
Kirol-jardueren kudeaketa	X			X	
Hiri udalekuen kudeaketa				X	
Gaztetxearen kudeaketa	X			X	
Babestutako enplegu soziala	X				
Diru-bilketa exekutiboa	X			X	

Entitatearen aurrekontua 2015eko urtarrilaren 29an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. Halaber, Osoko Bilkura horrek berak betetze-oinarriak onetsi zituen.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharrak jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2015eko ekitaldiko kontu orokorrei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Zizur Nagusiko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei lan honetan emandako laguntzagatik.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak Aranguren Ibarreko Udaleko alkateari eta alkate ohiari eman zitzaizkien ezagutzera, alegazioak aurkez zitzan. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Zizur Nagusiko Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko apirilaren 28ko Osoko Bilkurak 2015eko kontuak onetsi zituen.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu Kanpo Kontrolako Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzi emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritziaren eratorritzen da.

II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPEN BATEKIN

Udalak 2015eko ekitaldian hasi du —eta txosten hau egiteko datan ez du amaitu— 1995eko inbentarioa eguneratzeko eta gero onesteko prozesua; hori dela eta, ezin izan da ibilgetuaren kontabilitate saldoaren arrazoizkotasuna egiaztatatu. Saldo hori 30,73 milioi eurokoa da 2015eko abenduaren 31n.

IRITZIA

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespen batekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginenengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, haren emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2015eko kontabilitatearen egoera-orri bateratu (Udala gehi erakunde autonomoak) garrantzitsuenak azaltzen ditugu.

III.1. 2015eko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketak (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	5.021.472	131.962	5.153.434	4.896.724	95	4.817.996	98	78.728
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	5.845.472	43.453	5.888.925	5.464.224	93	5.137.344	94	326.880
3. Gastu finantzarioak	0	0	0	0		0	0	0
4. Transferentzia arruntak	452.162	49.522	501.684	449.694	90	346.674	77	103.020
6. Inbertsio errealak	5.653	3.735.752	3.741.405	819.801	22	642.052	78	177.749
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	54.000	0	54.000	12.200	23	12.200	100	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0
	11.378.759	3.960.689	15.339.448	11.642.643	76	10.956.266	94	686.377

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubi-deak	Betetakoa (%)	Kobrantzak	Kobranta (%)	Kobratzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	3.808.200	0	3.808.200	4.159.116	109	3.832.132	% 92	326.984
2. Zeharkako zergak	280.000	0	280.000	177.896	64	176.570	% 99	1.326
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	2.514.869	0	2.514.869	2.417.915	96	2.369.015	% 98	48.900
4. Transferentzia arruntak	4.335.910	40.482	4.376.392	4.386.928	100	4.021.714	% 92	365.214
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	385.780	0	385.780	411.778	107	404.611	% 986	7.168
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0	0,00	0	0,00	0
7. Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0,00	0	0,00	0
8. Finantza-aktiboak	54.000	3.920.207	3.974.207	12.776	0,00	12.776	100,00	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0,00	0	0,00	0
Guztira	11.378.759	3.960.689	15.339.448	11.566.409	75	10.816.818	94	749.592

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2014	2015
+ Aitortutako eskubideak	10.755.287	11.566.409
- Aitortutako betebeharrak	12.474.725	11.642.643
Aurrekontu-emaiza	-1.719.438	-76.234
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	-64.244	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	53.797
+ Diruzaintza-gerakinarekin txertaketa bidez finantzatutako gastuak	1.848.185	788.685
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doitua	64.503	766.248

III.3. DIRUZAINZTA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN31n

Kontzeptua	2014	2015
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.025.285	919.928
(+) Diru-sarreraren aurrekontua Aurtengo ekitaldia	917.478	749.590
(+) Diru-sarreraren aurrekontua Itxitako ekitaldiak	719.754	842.542
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	28.389	1.871
(-) Bilketa zaileko eskubideak	-631.748	-663.805
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-8.588	-10.270
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	968.962	915.831
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	732.534	686.377
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	0	0
(+) Diru-sarreraren itzulketak	5.433	4
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	0	0
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	230.995	229.450
(+) Diruzaintzako funts likidoak	25.683.467	25.435.133
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	25.739.789	25.439.230
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	97.693	44.163
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	23.486.132	22.775.532
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.155.964	2.619.535

III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A Ibilgetua	29.985.354	30.725.972
1 Ibilgetu materiala	29.432.980	29.798.961
2 Ibilgetu ez-materiala	471.650	471.650
3 Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	78.743	453.380
4 Herri-ondasunak	0	0
5 Finantza-ibilgetua	1.981	1.981
C Zirkulatuzailea	27.478.434	27.046.318
8 Zordunak	1.665.621	1.594.004
9 Finantza-kontuak	25.703.813	25.452.314
11 Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	108.990	0
Aktiboa, guztira	57.463.778	57.772.290

Pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A Funts berekiak	56.486.228	56.846.187
1 Ondarea eta erreserbak	38.012.020	37.823.846
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	0	548.133
3 Kapitaleko diru-laguntzak	18.474.208	18.474.208
C Epe luzeko hartzekodunak	0	0
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	0	0
D Epe laburreko hartzekodunak	977.550	926.103
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	968.962	915.831
6 Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	8.588	10.272
Pasiboa, guztira	57.463.778	57.772.290

III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2015ean

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2014	2015	Hartzeko	2014	2015
3 Hasierako izakinak	0	0	3 Amaierako erosketak	0	0
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	0	0
60 Erosketak	0	0	70 Salmentak	1.956.265	1.993.657
61 Langile-gastuak	4.856.272	5.023.736	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	475.412	827.184
62 Finantza-gastuak	0	0	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.391.459	2.507.631
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	685.418	698.811
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	5.493.787	5.337.212			
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	4.398.640	4.359.256
67 Transferentzia arruntak	412.075	422.022	77 Kapitalaren gaineko zergak	789.925	1.130.570
68 Kapital-transferentziak	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	27.149	8.852
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	742.991	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	37.866	0
Guztira	10.762.134	11.525.961	Guztira	10.762.134	11.525.961

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2015	Deskribapena	2014	2015
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	37.866	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	0	742.991
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	40.241	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	6
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	30.883	194.864	84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	0	0
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	0	548.133	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	108.990	0
Guztira	108.990	742.997	Guztira	108.990	742.997

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, kudeaketa-arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak ere aztertzen dira, bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 11,38 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 35 —hau da, 3,96 milioi euro— handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 15,34 milioikoak dira. Aldaketa horiek eragina dute batez ere diru-sarreraren finantza-aktiboen kapituluan eta gastuen inbertsio errealen kapituluan.

Aitortutako betebeharrak 11,64 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 76ko betetze-maila izan dute. Maila horren arrazoia da gastu gutxiago egin izana, batez ere inbertsioetan; izan ere azken horiek aurreikusitakoaren ehuneko 22 dira.

Aitortutako eskubideek 11,57 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila ehuneko 75 da. Diruzaintza-gerakinen txertaketa kontuan hartu gabe, betearazpenaren portzentajea ehuneko ehunetik gorakoka izanen da.

Izaerari begiratuta, gastuen ehuneko 93 eta diru-sarreraren ehuneko 99 arruntak dira.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	42	Tributu bidezko diru-sarrerak	58
Bestelako gastu arruntak	51	Transferentziak	38
Inbertsioak	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	4
	100		100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

	2014	2015	2015/2014 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	12.474.726	11.642.643	-7
Likidatutako eskubideak, guztira	10.755.287	11.566.410	8
Gastuen betetzea (%)	69	76	10
Diru-sarreren betetzea (%)	59	75	27
Ordainketak (%)	94	94	0
Kobratutakoa (%)	92	94	2
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	10.762.135	10.810.642	0
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	10.762.135	10.810.642	0
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.694.091	819.801	-52
Finantza-eragiketetan egindako gastuak (8. eta 9. kapituluak)	18.500	12.200	-34
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.724.268	11.553.634	8
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	6.282.450	6.754.927	8
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	13.000	0	-100
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	41	38	-7
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	58	62	7
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	-1.718.957	-76.810	96
Aurrekontu-emaizta doitua	64.503	766.249	1088
Aurrezki gordina	-37.866	742.992	2062
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	0	0	0
Aurrezki garbia	-37.866	742.992	2062
Zorpetze-maila (%)	0	0	0
Zorpetze-muga (%)	-0,37	6,43	1.921
Zorpetze-ahalmena (%)	-0,37	6,43	1.921
Diruzaintza-gerakina, guztira	25.739.789	25.439.230	-1
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2.155.964	2.619.535	22
Zor bizia	0	0	0

2015ean, Udalak ehuneko zazpi gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldi-koak baino ehuneko zortzi handiagoak izan ditu.

Gastu arruntak ia berdin mantendu dira, eta diru-sarrera arruntek, berriz, ehuneko zortzi egin dute gora. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko zortzi egin dute gora.

Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa 76.810 euro negatiboa da; 2014ko ekitaldian, halaber, 1,72 milioi euro negatiboa izan zen.

Aurrekontu-emaizta doitua 766.249 euro positiboa da; 2014an, berriz, 64.503 euro positiboa izan zen.

2015ean, bai aurrezki gordinak, bai aurrezki garbiak balio positiboak izan dituzte, 742.992 eurokoak; balio horiek nabarmen hobetu dira 2014ko ekitaldikoekin alderatuta, horiek ere 37.866 euro negatiboak izan baitziren.

Udalak ez du zor bizirik ez 2015eko ekitaldian, ez eta 2014ko ekitaldian ere, halako moduz non haren zorpetze-maila ehuneko zerokoa izan baita bi ekitaldietan. Zorpetzearen muga 2014an ehuneko -0,4 izatetik ehuneko sei positiboa izatera iragan da 2015ean, aurrezki gordinak izan duen hobekuntza garrantzitsuaren ondorioz; horrenbestez, zorpetze berria hartzeko gaitasun ekonomikoa dauka.

Diruzaintzako guztizko gerakina 25,4 milioikoa da, eta ehuneko bat egin du behera 2014koarekin alderatuta. Gastu orokorretara bideratutakoa 2,6 milioi eurokoa da, eta ehuneko hogeita bi egin du gora 2014ko ekitaldiarekiko.

Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk 25,4 milioi eurokoak dira 2015eko abenduaren 31n. Neurri handi batean, 2006ko eta 2011ko ekitaldietan aurrera eraman diren hirigintza-jarduketetatik heldu dira. 2014ko ekitaldiarekin alderatuta, eskudiruaren eta beste aktibo likido batzuen saldoak ehuneko bat egin du behera.

Zizur Nagusiko Udalak 2006-2015 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kap.	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1	Zuzeneko zergak	2.743.759	2.316.514	2.671.586	2.637.639	3.010.842	3.120.865	3.128.282	3.601.424	3.842.511	4.159.116
2	Zeharkako zergak	54.357	4.699.970	167.149	36.388	286.946	2.624.633	131.747	51.946	24.291	177.896
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.012.410	2.683.937	2.688.870	2.677.558	2.607.964	2.352.152	2.427.213	2.368.325	2.415.648	2.417.915
4	Transferentzia arruntak	3.930.759	4.110.296	4.610.758	4.575.991	4.932.147	4.310.629	4.434.786	4.271.858	4.398.640	4.386.928
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-lurren aprobetxamendua	895.818	1.204.503	1.895.093	703.802	349.825	492.153	706.481	482.863	43.178	411.778
6	Inbertsio errealen besterentzea	22.060.247	94.996	0	9.359	0	0	0	0	13.000	0
7	Kapital-transferentziak	20.555.235	9.565.916	4.807.736	2.928.347	1.881.198	390.217	949.947	280.245	0	0
8	Finantza-aktiboak	5.075	13.660	20.839	16.381	20.907	10.409	17.623	26.485	18.019	12.776
9	Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira		53.257.660	24.689.792	16.862.031	13.585.465	13.089.829	13.301.058	11.796.079	11.083.146	10.755.287	11.566.409

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulua	Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1	Langile-gastuak	4.087.381	4.090.435	4.509.275	4.732.743	4.818.854	4.610.140	4.441.090	4.633.902	4.737.138	4.896.724
2	Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	4.630.397	4.776.473	4.892.675	5.098.744	5.512.062	5.584.683	5.970.938	5.602.156	5.612.922	5.464.224
3	Finantza-gastuak	1.788	1.976	612	13	0	0	0	0	0	0
4	Transferentzia arruntak	436.046	442.918	609.071	920.690	466.269	442.686	655.038	600.354	412.074	449.694
6	Inbertsio errealak	15.205.602	21.297.175	5.047.587	3.095.225	9.119.836	617.314	519.201	500.091	1.694.091	819.801
7	Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
8	Finantza-aktiboak	10.200	21.400	20.995	24.800	7.400	10.000	31.649	18.808	18.500	12.200
9	Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira		24.371.414	30.630.377	15.080.215	13.872.215	19.924.421	11.264.823	11.617.916	11.355.311	12.474.725	11.642.643

2006tik 2010era hirigintza-jarduera handia izan zen, eta diru-sarrera ugari jaso ziren inbertsio errealen besterentzetik eta zeharkako beste zerga batzuetatik. Diru-sarrera horiek aldi horretan aukera eman zuten inbertsio-jarduera handia egiteko; jarduera horrengatik, kapital-transferentzietan zenbateko handiak jaso ziren.

2011ko ekitalditik aurrera, inbertsioak goitik behera gutxitu ziren, bai eta aurrekontuen bolu-mena ere.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2015era:

Adierazlea	2011	2015	2015/2011 aldea (%)
Zorpetze-ahalmena	% 18	% 6	-63
Inbertsio-indizea	% 5	% 7	28
Diruzaintza-gerakina	28,2 milioi	25,4 milioi	-10
Gastu arrunta biztanleko	767 euro	746 euro	-3
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	(*) 444 euro	466 euro	5

(*) Datu hau 2010ekoa da, zeren eta 2011n alderaketa nahasten duten aparteko eragiketarik izan baitziren.

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era, Udalak gastu arrunta gutxitu du eta diru-sarrera arrunta handitu du; horrek ekarri du berriz ere aurrezki garbi positiboa lortzea. Egoera horretaz gainera, diruzaintza-gerakin aipagarria dauka —gastu orokorretarako 2,6 milioi eta guztizko gakerako 25,4 milioi— eta inolako zorpetzerik ez du; horrek guztiak datozen urteetan Udalaren kudeaketa ekonomikoa erraztu behar du.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren betetzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez:

Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza negatiboa da, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	2015
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	-76.810
SEC dela-eta egindako doikuntzak	-37.786
Finantzaketa-beharrak	-114.596

Ez-betetze hori dela eta, 2016ko ekainean, Udalaren Osoko Bilkurak, 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, behar diren plan ekonomiko-finantzarioa onetsi du, ezarritako helburuak betetzeko modua emanen diona.

Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria txikiagoa da 2014ko ekitaldiko baina, eta hari baimendutako aldearen tasa gehitu behar zaio, 968.605 eurokoa; horrenbestez, bete egingen da gastuaren araua:

Kontzeptua	2014	2015
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	12.456.224	11.630.443
SEC dela-eta egindako doikuntzak	-13.000	0
Funts finalistekin finantzatutako gastua	-953.294	-959.749
Gastu zenbakarria	11.489.930	10.670.694
BPGaren erreferentziako tasa	% 1,3	
2015eko gastu zenbakarria	11.639.299	
2015erako behin betiko gastu zenbakarria	11.639.299	

Finantza-iraunkortasunaren araua: Udalak zorrik ez dauka.

Halaber, Udalak, oro har, betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak: 19,67 egunekoa da epea, gaur egun.

IV.3. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZEA.

Ganbera honen 2014ko ekitaldiko txostenari dagokionez, oraindik ere betetzeko daude, IV. ataleko hainbat puntutan aipatzen den bezala, honako gomendio hauek:

- *Kultura eta kirol patronatuak, zeinek langilerik ez baitute, Udalaren zerbitzu bihurtzeko aukera aztertzea.*
- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

IV.4. ALDERDI OROKORRAK

2015eko ekitaldirako aurrekontuari 2015eko urtarrilaren 29ko Osoko Bilkuran eman zion Udalak behin-behineko onespena, eta 2015eko martxoaren 12an hartu zuen indarra, behin betiko onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean.

Kirol eta Kultur patronatuek Udaleko langileen eta instalazioen bitartez ematen dituzte beren zerbitzuak; Musikako Patronatuak bertako langileak ditu, eta udal instalazioetan egiten ditu bere jarduerak.

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da eta Udala, txosten hau egiteko datan, eguneratzeko prozesuan dago bete-betean.

Zizur Nagusiko Udalaren aurka 2015eko ekitaldian aurkeztutako errekurtsoen azterketa eginda, ondorioztatzen da alde aurretik ez direla eraginen zenbateko aipagarriko erantzukizun ekonomikorik; horretan salbuespena da epaitegiek emateko daukaten ebazpena, auzitegiek oraindik ere ez dituztela ebatzi Udalak zenbait subjektu pasibori 2015ean lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergen likidazioak direla-eta igorritako zerga-likidazio batzuk direla-eta aurkeztutako errekurtsuak; likidazio horiek, guztira, 299.963 euro egiten dute. Beste txosten batzuetan aipatu dugun bezala, lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak direla-eta egindako erreklamazioak hainbat udaletan eragina duen arazo bat dira.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontuak indarrean dagoen legeriak agintzen duen epean egin eta onartzea.*
- *Kultura eta kirol patronatuak, zeinek langilerik ez baitute, Udalaren zerbitzu bihurtzeko aukera aztertzea.*
- *2015eko ekitaldian udal inbentarioa gaurkotzeko hasitako lanarekin jarraitzea eta hura amaitzea, honako helburu honekin: altak eta bajak kontrolatu eta jarraitzeko sistema bat ezartzeari, zeinak erraztuko baititu inbentarioa etengabe gaurkotzea eta kontabilitatean islatutako ibilgetuarekin lotzea.*

IV.5. LANGILEAK

Langileen atalaren gastuak 4,9 milioi euro egiten du; hau da, 2015eko ekitaldian sortutako gastu guztien ehuneko 42 eta gastu arrunten ehuneko 45.

2014ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko hiru handitu da, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	
Goi-karguak	41.414	41.372	-
Funtzionarioak	2.561.455	2.678.744	5
Lan-kontratadun langileak	886.144	920.128	4
Kuotak, prestazioak eta gizarte zamak	1.248.125	1.256.480	1
Langile-gastuak, guztira	4.737.138	4.896.724	3

Langile-gastuen handitzea funtsean zor zaio Udalak 2015eko ekitaldian bere langileei 2012ko abenduko aparteko soldataren ehuneko 50 ordaindu izanari. Soldata hori 20/2012 Errege Lege-dekretuaren bidez kendu zitzaien.

Udalaren Osoko Bilkurak 2015eko plantilla organikoa 2015eko otsailaren 17an onetsi zuen behin betiko. Guztira 96 lanpostu dauzka eta horietatik 16 hutsik daude 2015eko abenduaren 31n. Bestalde, Musika Eskolako Patronatuaren Batzordeak 2015eko plantilla organikoa 2015eko apirilaren 28an onetsi zuen behin betiko. Plantilla horrek 14 lanpostu dauzka, eta 2014ko abenduaren 31n horietatik bi lanpostu daude hutsik.

Bi plantilla horiek lanpostuen arabera banatzen dira, honako taulei jarraituz:

	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
A. Udala	96	80	16	15
Funtzionarioak	86	73	13	12
Lan-kontratudun finkoak	9	6	3	3
Izendapen askea	1	1	0	0
B. Musika Eskolaren Patronatua	14	12	2	2
Lan-kontratuko finkoak	14	12	2	2
Guztira	110	92	18	17

2015eko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 112 pertsonak egiten zuten lan:

Langileak	Udala	Musika Eskolaren Patronatua	Guztira
Udaleko batzarkideak	1	0	1
Behin-behineko langileak - izendapen askekoak	1	0	1
Funtzionarioak	69	0	69
Lan-kontratudun finkoak	4	12	16
Behin-behineko lan-kontratudunak	21	2	23
Aldi baterako lan-kontratudunak	2	0	2
Guztira	98	14	112

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Alkatea	1
Idazkaritza	6
Zerbitzu ekonomikoak	6
Kultura	7
Kirola	4
Herritarrentzako zerbitzuak	16
Hirigintza zerbitzuak	1
Obren Zerbitzua	11
Lorezaintza zerbitzua	10
Segurtasuna eta babesa	23
Ikastetxea	6
Berdintasuna	3
Giza baliabideak	4
Udala, guztira	98

Langile-gastuen lagin bat aztertuta, langile-gastuak behar bezala kontabilizatuta daudela, ordainsariak betetako lanposturako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla ondorioztatzen da, oro har.

Azkenik, nabarmendu beharra dago txosten hau idazteko egunean ebazteko dagoela Udalak Administrazioarekiko Auzien Auzitegian aurkeztutako errekurtsioa, zeren eta Nafarroako Administrazio Auzitegiak baliogabetzat jo baitzituen deialdi batzuk, polizia-funtzionarioen bost lanposturi eta lorategietako langileren 4 lanposturi dagozkionak, hain zuzen ere Udalak ez zuelako ordezkari sindikalekin kontsultatu 2012rako lan eskaintza publikoa (tartean bi deialdi horiek zeuden), hura osoko bilkuran onetsi eta NAO-n argitaratu aurretik. Lanpostua lortu zuten izangaiek haien jabetza 2013an hartu zuten.

IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 5,46 milioi euro egin dute; guztira, ekitaldiko gastuen ehuneko 47 eta gastu arrunten guztizkoaren ehuneko 51 egiten dute. 2014ko ekitaldiarekin alderatuta, kapitulu honen gastuak ehuneko hiruko jaitsiera izan du.

2015eko ekitaldian esleitutako honako kontratazio-espeditenteak aztertu ditugu: (BEZa kentuta):

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Ardoi sektoreko lora-tegiak mantentzeko zerbitzua	Laguntza	Irekia, European publizitate-rik egin gabe (entitate jakin batzuentzat erreserbatua)	144.008	1	144.000
Udal aseguruak	Laguntza	Irekia, European publizitatea eginda	118.102	2	88.699

Aurreko azterketatik, aurreko ekitaldietan esleitutako kontratuen azterketatik eta kapitulu honetan exekutututako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia.

IV.7. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Horrelako gastuek 449.694 euro egin dute, eta 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko lau dira. Ez dago kapital-transferentziengatik gasturik, ez ekitaldi honetan, ez 2014koan.

Honakoa da gastu horiek 2015eko ekitaldian eta 2014ko ekitaldian alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	2015/2014
Toki entitatearen enpresei (Animsa)	0	73.232	
Toki entitateei	6.966	7.617	9
Familiei	90.149	141.947	57
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	302.960	217.379	-28
Enpresa pribatuei	12.000	9.519	-21
Transferentzia arruntak	412.075	449.694	9

2014koekin alderatuta, gastu hauek ehuneko bederatzi egin dute gora, funtsean familientzako laguntzak handitu direlako eta 2015ean Animsaren zerbitzu informatikoak toki entitatearen enpresei egindako transferentzien gisara kontabilizatu direlako, entitate horri 2015ean zerbitzu publikoaren zuzeneko kudeatzailearen izaera eman baitzaio. Igoera horiek konpentsatu dira irabazi asmorik gabeko erakundeentzako transferentzien kontu-sailean gertatutako jaitsierarekin, eraiki-nak zaharberritzeko emanako laguntzek behera egitearen ondorioz.

Honakoak dira 2015ean emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Familietan esku hartzeko programa	89.594
Futbol klubarentzako diru-laguntza	79.101
Saskibaloia fundazioarentzako diru-laguntza	43.358
Gizarte larrialdiko proiektua	40.482
Zizur Nagusiko banda	18.000
Guztira	270.535

Egindako azterketatik ondorioztatzen da ezen, orokorrean, Udalak berriazko ordenantzen arabera ematen dituela diru-laguntzak.

Udalak diru-laguntzak berariazko ordenantzen bitartez arautzen ditu, nahiz eta ez daukan diru-laguntzei buruzko ez ordenantza orokorrik ez plan estrategikorik.

Gure gomendioak:

- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat egitea.*
- *Diru-laguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokor bat onartzeko egonkortasuna aztertzea.*

IV.8. INBERTSIOAK

2015. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (3,7 milioi euro) ehuneko 22 bete da soilik, eta 819.801 eurora iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldirako aitortutako betebeharrak guztien ehuneko zazpi. Egin ez diren inbertsioen artean, aipagarriena kirol instalazioak eraberritzearena da, 1,46 milioi euroko aurreikuspenarekin.

2014. urtearen aldean, inbertsioen zenbatekoak 874.290 euro —ehuneko 52— egin du behera.

Hauek izan dira inbertsioen kapituluari 2015eko ekitaldian egotzitako gastu nagusiak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
Ardoi sektoreko erabilera anitzeko pistaren estaldura	374.637
Argi publikoetan egindako inbertsioak	122.499
Ikastetxeetan egindako inbertsioak	77.185
K-1 lokaletan egindako inbertsioak	40.093

Kontratazio-espediente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe)

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Ardoi sektoreko erabilera anitzeko pistaren estaldura	Obrak	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	483.820	10	321.313
C-7 A-25 unitateen argite-ria publikoa berritzea	Obra	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik beheiti	107.435	6	96.691

Aurreko azterketatik eta kapitulu honetan exekututako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Udalak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia.

IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubideak 11,6 milioiokoa izan dira; ehuneko 99,89 eragiketa arruntgatiko diru-sarrerei dagozkie. Horien artean, nabarmentzekoak dira zergen bidezko diru-sarrerak (4,3 milioi) eta transferentzia arrunten bidezkoak (4,4 milioi).

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 75,4koa izan da. Diru-sarreraren kapitulu guztietan, ehuneko ehunaren inguruko edo hortik gorako gauzatze-mailak izan dira, salbu eta zeharkako zergen kapituluaren, non betetzea ehuneko 63,5ekoa izan baita. Diru-sarreraren Gauzatze-maila egin gutxitu da, ekitaldian zehar aurrekontu-aldaketak onetsi direlako, diruzaintza garrantzitsuak erabiltzen joateko; hain zuzen ere, 3,9 milioi euro egin dute aurrekontu-aldaketa horiek. Txertaketa horiek kontuan hartu gabe, betetzearen portzentajea ehuneko ehunetik gorakoa da.

2014. urtearen aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko 7,54 egin dute gora. Hona xehakitzea:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2015/2014
	2014	2015	
1. Zuzeneko zergak	3.842.511	4.159.116	8,24
2. Zeharkako zergak	24.291	177.896	632,35
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.415.648	2.417.915	0,09
4. Transferentzia arruntak	4.398.640	4.386.928	-0,27
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	43.178	411.779	853,68
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	10.724.268	11.553.634	7,73
6. Inbertsioen besterentzea	13.000	0	-100
7. Kapital-transferentziak	0	0	0
8. Finantza-aktiboak	18.019	12.776	-29,10
9. Finantza-pasiboak	0	0	0
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	31.019	0	-58,81
Diru-sarrerak, guztira	10.755.287	11.566.410	7,54

2015eko ekitaldian, nabarmentzekoa da zuzeneko zergen likidazioan gertatutako igoera, nagusiki lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergan, bai eta zeharkako zergetan gertatutakoa ere; halaber, nabarmentzekoa da tasen eta transferentzia arrunten bidezko diru-sarreretan dagoen egonkortasuna.

Ondare bidezko diru-sarreraren igoeraren kasuan, nabarmendu behar da horren arrazoia dela 2013ko abenduan formalizatutako banku-gordailuetatik 0,4 milioiko zenbatekoaren interesen kobrantza 2015eko ekitaldian aitortu izana, gordailu horiek muga-egunera iritsi direnean. Indarraldia dela eta, ia interes horiek guztiak 2014ko ekitaldiari dagozkio; halere, Udalak kutxaren irizpidea erabili du interes horiek aitortzeko. Irizpide hori dela eta, Udalak ez ditu ekitaldi honetako diru-sarrera gisa aitortu 2015eko urtarrilean formalizatutako gordailuek ekitaldiaren amaierara arte sortutako interesak, zeinek 2016an baitute muga-eguna; haietarako kalkulatu den zenbatekoa 110.000 euro ingurukoa da.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2015/2014
	2014	2015	
Lurraren kontribuzioa	2.151.933	2.143.905	-0,4
Ibilgailuak	685.418	698.812	2,0
Lurren balio-gehikuntza	789.925	1.130.570	43,1
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	215.235	185.829	-13,7
EIOZa	24.291	177.896	632,4
Guztira	3.866.802	4.337.012	12,2

Alde nagusiak antzematen dira gainbalioengatik diru-bilketan, zeren eta Ardoi sektorean etxebizitzak entregatu baitira eta jabeek sektore berean lursailen salerosketak egin baitituzte; halaber, aldeak izan dira EIOZaren likidazioan, zeren eta 2015ean Ardoi sektorean 39 etxebizitzaren eraikuntza hasi baita.

Gainerako udal zergek alde txikiak izan dituzte. Nabarmentzekoa da jarduera ekonomikoen likidazioan gertatutako jaitsiera; izan ere, likidazio horrek beheranzko joerarekin jarraitzen du.

Gainbalioen bidezko diru-sarrerei dagokienez, nabarmentzekoa da likidazioen aurka zenbait errekurtsio aurkeztu direla, 299.963 eurokoak, IV.4 atalean aipatu dugun bezala.

Balorazio-ponentziaren azken gaurkotzea 2013an egin zen, eta Osoko Bilkurak hura onetsi ondoren, onetsitako koefiziente berriak 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi ziren aplikatzen.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Zerga	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,232	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,40	1 – 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,86tik 3,16ra	2,1 - 3,6 bitartean
Zerga-tasa	18,22	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2 - 5

Tasa horiek ez dute inolako aldaketarik izan 2014ko ekitaldian aplikatutakoekin alderatuta.

IV.10. HIRIGINTZA

Zizur Nagusiko Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Unitatearen bitartez eta Obra Unitatearen lankidetzarekin:

Horrez gainera Udalak kanpoko hirigintza-aholkularitza bat badauka —teknikoa eta juridikoa—, arkitekto talde batek egiten duena. 2015ean, 18.211 euroko gastua ekarri du aholkularitza horrek.

Zizur Nagusiko Udalaren plana 2004an onetsi zen, eta alderdi garrantzitsuenetan, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakoari egokitzen zaio.

2015ean, zenbateko aipagarriena duen obra-lizentzia Ardoi sektorean 39 etxebizitza eraikitzea da.

Udalaren lurzoru-ondarea erakundearen gainerako ondasunetatik bereizita kudeatzen eta erregistratzen da. Honako hau da haren osaera 2015eko abenduaren 31n:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Ondasunak	4.687.606
Diru-sarrerak	22.447.949
Guztira	27.135.555

Udalak badauka hirigintza-hitzarmenen erregistro gaurkotua. Haren irakurketatik eratortzen da 2015eko ekitaldian ez dela hirigintza-hitzarmen berririk egin, eta ez dela, ezta ere, hirigintza-jarduketa garrantzitsurik egin.

IV.11. ERAKUNDE AUTONOMOAK

IV.11.1. Kultur Patronatua

Kultura Patronatua sortu zen Zizur Nagusiko biztanleen partaidetzarako ildo eta gizarte- eta kultura-erreferentziarako gune gisa, eta gisa honetako jarduerak garatu izan ditu: ikastaroak, gizarte- eta hezkuntza-izaerako hitzaldiak, antzerki- eta dantza-ekitaldiak, entzunaldi eta kontzertuak, proiektioak, erakusketak, liburutegia.

Kultura Patronatuak ez du langile berekirik, haren langileak Udaleko langileen multzoan sartuta baitaude. 2015eko abenduaren 31n, Udaleko 5 funtzionarioik eta bitarteko lan-kontratudun bost pertsonak egiten zuten lan Patronatuan, bai eta aldi baterako kontratua duen pertsona batek ere.

2015ean, 0,4 milioiko gastuak (funtsean ondasun arruntenak eta zerbitzuenak) eta 0,39 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona haien xehakatzeara:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kuotak eta sarrerak	104.286
Udalaren diru-laguntza	215.654
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	50.625
Enpresa pribatuen diru-laguntza	20.000

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 27 ordaindu ditu; 2014an, berriz, ehuneko 28 ordaindu zituen.

Haren jarduera nagusiak hirugarrenei esleitzen zaizkie kasuko kontratuaren bitartez. Kontratu horiek prozedura irekiaren bidez izapidetzen dira.

IV.11.2. Kirol Patronatua

Kirol Patronatua zenbait ataletan dago banaturik. Atal horiek kudeatzen eta garatzen dituzte Zizur Nagusiko biztanleei eskaintzen zaizkien kirol jarduerak. Ez du langile berekirik, langileak Udaleko langileen multzoan sartzen baitira. 2015eko abenduaren 31n, Udaleko hiru funtzionarioik eta bitarteko lan-kontratudun pertsona betek egiten zuten lan Patronatuan.

2015ean, 0,54 milioiko gastuak —funtsean ondasun arruntenak eta zerbitzuenak— eta 0,56 milioiko diru-sarrerak dauzka. Hona diru-sareren xehakapena:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kuotak eta sarrerak	352.821
Udalaren diru-laguntza	185.981
Beste diru-laguntza batzuk	25.692

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 65 ordaindu ditu, eta 2014ko ekitaldian, berriz, ehuneko 60 ordaindu zituen.

Haren oinarritzko kirol jarduerak hirugarrenekin kontratatzen dira prozedura irekien edo negoziatuen bitartez. Kontratu hauek urtebetekoak izaten dira, eta gehienez ere hiru edo lau urterako luzatzeko modukoak.

2015eko ekitaldian, ez da bolumen handiko kontratazio-prozedurarik egin, eta indarrean dauden kontratuak aurreko ekitaldietan esleitu eta 2015eko ekitaldi honetarako luzatutakoak dira.

Aurreko ekitaldietan esleitutako kontratuen azterketatik eta kapitulu honetan exekutututako gastuen lagin batetik ondorioztatzen da Kirol Patronatuak modu arrazoizkoan betetzen duela kontratazioaren arloan indarra duen araudia.

IV.11.3. Musika Eskolaren Patronatua

Musika Eskolaren Patronatuak Musika Eskolaren kudeaketaren zerbitzua ematen du, eta honakoen gisako jarduerak garatzen ditu: instrumentazioa, entzunaldiak, kontzertuak eta abar. Patronatuak bere plantilla organikoa eta bere langileak dauzka: 2015eko abenduaren 31n, 12 langile finko eta aldi baterako lan-kontratua duten bi pertsona dira.

0,50 milioi euroko gastuak dauzka, zeinak ia guztiz langile-gastuei baitagozkie.

Diru-sarrerei dagokienez, 0,48 milioi, funtsean, honakoetatik datoz:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Matrikulak eta jaso-agiriak	173.159
Udalaren diru-laguntza	236.614
Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza	59.352
Enpresa pribatuen diru-laguntza	10.000

Patronatuak diru-sarrera berekiekin gastuen ehuneko 35 ordaindu ditu, eta 2015eko ekitaldian, berriz, ehuneko 39 ordaindu zituen.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

